

## SASKIBALOIAN KIROL TEKNIKARI TITULAZIOA LORTZEA AHALBIDETZEN DUTENIKASKETEN ERDI MAILAKO HASIERA ZIKLOEN DEIALDIA

CAED Kirol-teknikarien Eskola ASFEDEBI KIIB-k, Saskibaloiko Kirol Teknikari titulua lortzeko ikastaro ofizialak deitzen ditu Bizkaiko eta Euskadiko Saskibaloï Federazioekin elkarlanean. Titulazio hau, erregimen bereziko irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen den, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren irakaskuntzen barruan dago.

Formakuntzaren garapenerako bi deialdi mota ezarri dira, bat orokorra eta bestea berezia, talde zehatzei zuzendua. Deialdi desberdinetan eskaintzen diren ikastaroak honakoak dira:

- **Deialdi orokorra:** Erdi Mailako Hasierako Zikloaren ikastaroa, irakaskuntzak arautzen dituzten arautegikako baldintza orokor eta zehatzak betetzen dituzten pertsoneri zuzendua dago. Hona hemen betebeharraren xehetasunak:
  - Sartzeko baldintza orokorrak: DBH edo baliokidea irakaskuntza ondorioetarako edo kirol irakaskuntzetarako baldintza akademikoak ordezkatzeko duen proba gaitza.
  - Sartzeko baldintza zehatzak: Izaera zehatzeko sarbide proba gaitzia izatea edo haur mailatik hasi eta maila absolutu arteko lehiaketa federatu bateko mailaren batean gutxienez denboraldi batean lehiatu izanaren meritua ziurtatzea, Espainiako Saskibaloï Federazioak, Euskadiko Saskibaloï federazioak edo dagokion lurraldeko Federazioak igorritako ziurtagiriaren bitartez.
- **Talde zehatzei zuzenduriko deialdi berezia:**
  - Gutxienez, Federazio izaera baino ez duen I Graduko Saskibaloï entrenatzaile ikastaroa gaitzia izatea egiaztatzen duten pertsonentzat Erdi Mailako Hasiera Zikloa. Era berean, pertsona hauek deialdi orokorrerako ezarritako sarbide baldintza orokor eta zehatzak egiaztatu beharko dituzte.

### Eskaintza mota eta ikasketa saioen antolakuntza

Formakuntza eskaintza ikasle potentzial gehienentzat, beraien ezaugarriak edozein direlarik, eskuragarria izateko helburarekin, eta honek ikasketak beste kirol jarduera, lan edo jarduera pertsonekin bateragarri egiteko helburuarekin, **izaera erdipresentziala izango du, hau da, ikasketa saio presentzialak ikasketa saio ez presentzialekin konbinatuko dira.**

**Ikastaroen hizkuntza:** Euskara eta gaztelania

### Deialdi bietarako ikasketa egutegi orokorra

Matrikulazio epea	2018ko otsailaren 1etik 23ra (biak barne)
Formakuntzaren hasiera	2018ko martxoak 5
Bloke komunaren eta zehatzaren amaiera 1.deialdia	2018ko ekainak 11
Bloke komunaren eta zehatzaren amaiera 2.deialdia	2018ko uztailak 31
Formakuntza praktikoaren moduluaren hasiera ( honen salbuespenik aurkezten ez duen ikasleentzat)	2018ko uztailak 31
<i>Formakuntzaren hasiera datak behin behineko izaera dauka eta ikastaroa hasteko gutxienezko ikasle kopurua izateren baita dago.</i>	

### Ikastaroen iraupena eta ikasketa saioen ordutegia

Bloke komunak eta hasierako zikloaren bloke zehatzak, formakuntza praktikoaren formazio modulua izan ezik, 13 asteko iraupena izango du bere osotasunean.

Formakuntzaren iraupena egutegiaren eta bai bloke komuneko eta bai bloke zehatzeko irakaskuntza zuzeneko aurrez aurreko ikasketa saioen ordu kargen arabera kalkulatu da, hauek orokorrean astearte eta ostegunetan emango direlarik 19:00etatik 21:00etara eta larunbat eta igandeetan 9:00etatik 14:00etara.

### Ikasketa saioak emango diren tokia

Bloke komuneko aurrez aurreko ikasketa saioak eta bloke zehatzeko irakaskuntza zuzeneko aurrez aurreko saioak Bilboko Martin Barua Picaza kaleko 27.zenbakian CAED Kirol-technikarien Eskola ASFEDEBI KIIB-n burutuko dira.

**Eskaintako plaza kopurua::**30 (Ikastaroa abiatzeko gutxienez 20 pertsona egon beharko dira matrikulaturik)

### Matrikulazioaren prezioa

**Deialdi orokorra:** Ikasle bakoitzaren matrikulazio prezioa 590€takoa da. Prezio horretan formakuntza gainditzeko bi deialdi sartzen dira.

**Talde zehatzei zuzenduriko deialdi berezia:** Ikasle bakoitzaren matrikulazio prezioa 310€takoa izango da. Prezio horretan formakuntza gainditzeko bi deialdi sartzen dira.

Baliozkotze, korrespondentzia eta salbuespenak eskatzen badira, matrikularen prezioan bonifikazio batzuk egongo dira, hauek dagozkion organoak aitortu beharko dituelarik.

## INFORMAZIO GEHIGARRIA

### Arautegien erreferentzia

- Urriaren 24ko 1363/2007 ERREGE DEKRETUA, erregimen bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena.
- urriaren 30eko 980/2015 Errege Dekretua, saskibaloiko kirol-technikariaren titulua ezarri, eta dagozkion oinarrizko curriculumak eta sarbide-baldintzak finkatzen dituena, eta atletismoko kirol-technikariaren titulua ezarri eta dagozkion gutxienezko irakaskuntzak eta sarbide-baldintzak ezartzen dituen irailaren 6ko 669/2013 Errege Dekretua aldatzen duena.
- Maiatzaren 24ko ECD/481/2017 agindua, Saskibaloiko teknikari Tituluari dagokion erdi mailako hasiera eta bukaera zikloaren curriculumak ezartzen duen ( era gehigarrian ezarria).

### Formakuntza eta honi dagozkion gaitasunak gainditu ondoren lortutako ziurtagiri mota

Formakuntza osoa gainditu ondoren, hau da, bloke komuneko eta bloke zehatzeko modulu guztiak urrenez urren, **Saskibaloiko kirol modalitatean Erdi Mailako Hasiera Zikloa gainditu izanaren Ziurtagiri Akademiko Ofiziala jasoko da.** Horrekin, Saskibaloiko Kirol Teknikari titulazioa lortzeko ikasketak jarraitzeko aukera egongo da.

Ziurtagiri honekin, puntu hauei loturiko konpetentziak egiaztatuta geratzen dira:

- Saskibaloiairen kirol hastapenean dinamizazioa, heziketa eta zehaztasuna.
- Maila honetako ekintza, lehiaketa eta ekitaldietan laguntza, animazioa, zuzendaritza, antolakuntza eta babesa kirolariei.

Guztia, erreferentziazko formakuntza modeloaren ildoarekin bat eginez, segurtasun baldintza egokietan eta jardueran parte hartzen duten kirolariengan asebetetzea baimenduko duelarik.

*Saskibaloiko erdi mailako hasiera zikloaren ingurugiro profesionala eta lan eta kirol ingurugiroak*

Saskibaloiko erdi mailako hasiera zikloaren ingurugiro profesionala eta lan eta kirol ingurugiroa kirol, aisialdi, denbora libre eta turismoaren sektorean kokatzen da, profesional hautzako lanpostu eta okupazio nabarmenenak 1 mailako Saskibaloia Entrenatzailea eta Saskibaloia Eskoletako Monitorea direlarik besteak beste honako tokietan: saskibaloirako hastapen edo teknifikazio kirol-josteta ekintzak eskaintzen dituzten izaera publikoko zein izaera probatuko entitate txiki,ertain zein handietan, kirol patronatuetan, udal kirol entitateetan, federazio eta kirol klubetan, klub sozialetan, saskibaloia Eskoletan, kirol hastapen zentroetan, ikastetxeetan, kirol zerbitzuen enpresetan, saskibaloia kanpusetan, etab..

**Erdi mailako hasiera zikloa gainditzeak Erdi mailako bukaera ziklora sartzea ahalbidetzen du, Saskibaloiko Kirol Teknikari titulazioa lortzeko aukera ematen duelarik.**

**Ikastaroa bukatuta, matrikulazio deialdi berri bat zabalduko da erdi mailako bukaera ziklorako, horri esker ikasleek ikasketak bukatuko dituzte eta ondorioz Kirol teknikari titulua jasoko dute.**

Edozein kontsulta burutzeko CAED Kirol-technikarien Eskola ASFEDEBI KIIB-ko Idazkaritzara zuzendu behar duzue, Martín Barua Picaza kalea, 27 behea 48003 Bilbao (BIZKAIA).

Jendaurreko arreta ordutegia honakoa da:

- Astelehena, asteazkena eta ostirala 10:00etatik 12:00etara.
- Astearte eta ostegunak 16:00etatik 18:00etara

Harremanetan jartzeko beste bitarteko batzuk:

- Tel.: 944 037 800 - 944 423 960
- E-mail: [formakuntza@asfedebi.eus](mailto:formakuntza@asfedebi.eus) eta [secretaria@bizkaiabasket.com](mailto:secretaria@bizkaiabasket.com)

Ikastaroaren informazio gehigarria:

[www.asfedebi.eus](http://www.asfedebi.eus)  
[www.bizkaiabasket.com](http://www.bizkaiabasket.com)  
[www.basketbasko.com](http://www.basketbasko.com)